

CALCUTA ONDOAN



INDIAKO GENERO INDARKERIRAREN AURKAKO HOGEITA HAMAR
URTEKO BORROKA FEMINISTA

Emakumeen Nazioarteko Konferentzia - Kolkata 2026ko ekainaren 1etik 3 ra

Calcuta Ondoan GKE-ak bost urte darama Mendebaldeko Bengalako Swayam erakundearekin lankidetzan, gure tokiko bazkide den Udayani Social Action Forumekin batera garatutako proiektuen bidez. Swayam da generoaren inguruko prestakuntza eta indarkeriaren prebentzio prozesuen arduraduna, eta ia 20 urtez lagundu ditugun Mendebaldeko Bengalako landa-eremueta 5.000 emakumerekin egiten du lan, Kolkataren inguruan.

Swayam bere 30. urteurrena ospatzen ari da, eta horren harira, herrialde osoko erakundeetako ekintzaileak bildu dituen hiru eguneko ekitaldi handi bat antolatu du. Jaime Sotomayorrek, Indian lanean ari den gure lankidetzaren teknikariak, parte hartu du topaketa honetan. Hauek dira bere pertzepzioak:

Ekaineko hiru egunetan zehar, "Indiako genero-indarkeriaren aurkako borroka feministaren hogeita hamar urteak" izeneko konferentzia topaketa akademiko hutsa baino askoz gehiago izan zen: memoria, elkarrizketa eta eraikuntza kolektiborako espazioa bihurtu baitzen.

Hasieratik, giroa handitasunaren eta ospakizunaren arteko nahasketa batek markatu zuen. Amrita Dasgupta (Swayam-eko zuzendaria) eta Jael Silliman bezalako pertsona esanguratsuen hitzekin hasi zen ekitaldia. Hizlari horiek galdera indartsu bati eman zioten bidea: nola eraiki, mantendu eta eraldatu da Indiako mugimendu feministak azken hamarkadetan?

Memoria, aniztasuna eta mugimendu feministaren egungo erronkak

Lehen jardunaldia historiaren azterketan murgildu zen. Uma Chakravarti, Madhu Bhushan eta Hasina Khan bezalako ahotsek genero-indarkeriaren aurkako mugimenduaren une garrantzitsuenak berreraiki zituzten, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arte.

Ez zen soilik mugarri historikoen errepasoa izan; mugimendu anitz eta etengabe aldatzen ari den baten oinarrian dauden tentsioak, lorpenak eta borroka ulertzeko ahalegina ere izan zen. Giro intimo eta aldi berean politiko batean, parte-hartzaileek dagoeneko gure artean ez dauden feministei omenaldia egin zieten, egungo aurrerapen guztiak askotan ikusezin bihurtu diren aurreko belaunaldien borroketan oinarritzen direla aitortuz.



41.2k
Ekaina 2026

Bigarren egunak lurraldearen eta aniztasunaren ikuspegia ekarri zuen. Kavita Punjabiren gidaritzapean, eskualdeetako elkartasunei buruzko mahai-inguruan Indiako ipar-ekialdeko eta ekialdeko ordezkariak bildu ziren, hala nola Monisha Behal, Radhila Chai eta Elena Horo. Haien testigantzek erakutsi zuten sarritan kontakizun nagusietatik kanpo geratzen diren errealitateak ere badirela. Argi geratu zen Indiako feminismoa ez dela mugimendu homogeneoa; aitzitik, hizkuntzak, lurraldeak, klase sozialak eta kulturak zeharkatutako borroken konstelazio bat da, zalantzarik gabe.



Saioek aurrera egin ahala, indarkeriaren forma garaikideak agertu ziren. Elkarrizketa sutso batean, Neeraja Kudrimotik klimaren eta generoaren arteko lotura aztertu zuen; Persis Sidhwak, berriz, indarkeria digitala jarri zuen mahai gainean. Priyanka Samyk misoginiaren gorakada garaikideaz hitz egin zuen, eta Chayanika Shahk emakume queerrek eta pertsona transek jasaten dituzten indarkeria espezifikoak ikusarazi zituen. Esku-hartze horiek

eztabaida zabaldu zuten eta genero-indarkeriak forma berriak hartzen dituela erakutsi zuten, analisi eta erresistentzia tresna berriak beharrezko bihurtuz.

Etorkizuneko feminismoak eraikitzen

Hala ere, konferentzia ez zen diagnostiko hutsean geratu. Lan-mahaietan eta eztabaida kolektiboetan, parte-hartzaileek hausnarketatik estrategiara egin zuten jauzi. Premiazko erronkak identifikatu ziren, esperientziak partekatu ziren eta, batez ere, etorkizun feministaren aukerak irudikatu ziren. Metodologia parte-hartzaileak — mahai-inguruetatik hasi eta "gallery walk" dinamiketaraino — ideiak zirkulatu, kontrastatu eta kolektiboki eraldatzeko aukera eman zuen. Jardunaldi hori Kerala estatuko Thudippu dantza-konpainiaren "Gossip" antzezlanarekin amaitu zen. Emakumeen arteko adiskidetasunaren edertasuna eta indarra ospatzen dituen lan honek hiru lagunen bizitza du ardatz, eta "esamesa" komunikazio modu ezinbesteko gisa aldarrikatzen du; maitasunean, elkarren babesaren kulturen eta gizarte patriarkal batean bizirauteko estrategietan sustraitutako praktika gisa.

Azken egunak prozesu hori guztia ariketa sakonki politiko batean bildu zuen: hausnarketa kolektibo guztien berrikuspena eta ideia zein estrategien bateratzea. Ahots, lehenetasun eta konpromisoen sare batek mugimenduaren etorkizuna sendotzea izan zuen helburu, eta amaiera Vrinda Grover abokatu, aktibista feminista eta emakumeen eskubideen defendatzailearen hitzaldiarekin iritsi zen.

Saio formaletatik harago, elkarrizketa informalean, musikaren eta kultur jardueren bidez mahai gainean jarri zen mugimendu feministak ere afektuen, zaintzaren eta ospakizun kolektiboaren gainean eraikitzen direla. Halaber, konferentziak agerian utzi zuen etorkizuneko feminismoak aniztasunetik, elkarrizketatik eta ekintza kolektibotik eraikitzen direla.

Gaur egungo erronken aurrean, parte-hartzaileek aliantzak eta topaguneak indartzearen garrantzia berretsi zuten. Topaketa hau bultzada berri bat izan zen gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoak eraikitzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko.



lazko Ekonomia Balantzea aurkezten dizuegu. Urte berezia izan zen, ospakizunen urtea izan baitzen. Hogeitabostgarren urtemugan topaketak, proiektu aunitz, ametsak handiak eta erronkak itzelak ekarri dituzte. Hori guztia posible izan da zuen babesari esker, baita gure boluntario eta langileen lanari esker ere. Era berean, Indian eta Argentinan laguntzen ditugun tokiko erakundeek ekarpena ere ezinbestekoa izan da. Eta, nola ez, zuek guztiok Calcuta Ondoan GGKE-ren ibilbidearen parte izan zarete urte hauetan zehar.

Datorren ekainaren 16an, Urteko Batzarra egingo dugu. Bertan, lankidetzaren proiektuak xehetasunez azalduko ditugu, baita joan den urtean Gipuzkoan garatutako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuak ere.

25. urteurrena dela eta, hainbat jarduera artistiko antolatu ditugu: Intxaurrondon (Donostia) horma-irudi bat margotu dugu, eta, halaber, arte efimeroko ekintzak egin ditugu Zarauzko hondartzan eta Kontxako hondartzan. Horrez gain, webgune berria lantzen aritu gara, eta ikus-entzunezko berriak sortu ditugu. 2025-a, gainera, Fernando Verarekin batera lan handia egin

Dirulaguntza publikoen banakapena:	
742.632,65 €	
Eusko Jaurlaritza	543.801,64 €
GFA	101.518,90 €
Donostiako Udala	76.455,70 €
Zarauzko Udala	20.856,41 €



dugun urtea izan da, "Natura ere bagara" izeneko dokumental luze berriaren ekoizpenean. Dokumentala 2026ko azken hiruhilekoa estreinatuko da.

Lankidetzaren proiektuei dagokienez, Indian ditugun konpromisoei eta Argentinan hasi berri ditugun proiektuei eusteaz gain, Nepalgo eta Bhutango erakundeekin aliantza berriak sortu ditugu, eta proiektu horiek dagoeneko martxan daude.

Etorkizunari ilusioz begiratzen diogu, elkartasunean, justizia sozialean eta pertsonen duintasunean oinarritutako proiektuak sustatzen jarraitzeko asmoz.



SARREREN BANAKETA		779.925,73 €
Bazkideak		25.212,07 €
Dohaitzak eta kanpainak		8.138,87 €
Sarrera finantziarioak		3.942,14 €
Dirulaguntza publikoak		742.632,65 €
Borondatezko erreserben estaldura		1.285,12 €
GUZTIRA		781.210,85 €
GASTUEN BANAKETA		781.210,85 €
Nazioarteko Lankidetzaren		567.242,88 €
Soldadak eta G. Segurantzaren		142.206,72 €
Hezkuntza eta Sentsibilizazioa		60.363,84 €
Administrazio gastuak		11.397,41 €
GUZTIRA		781.210,85 €

AGENDA

OSTIRALA EKAINA	19	"Vidas en +" eta "Piruletas" film-foruma – Oiartzun, Gipuzkoa	19:00-21:00
LARUNBATA EKAINA	20	Naturaren birkonexio tailerra – Uliako Interpretazio Zentroa, Donostia	10:00-16:00
EKAINA 23	al IRAILA 17	Natura ere bagara erakusketa - Uliako Interpretazio Zentroa	10:00-18:00
ASTELEHENA IRAILA	14	Ekofeminismoari eta Naturaren Eskubideei buruzko jardunaldia – Cristina Enea, Donostia	10:00-18:00

NORTZUK GARA?

Calcuta Ondoan ONGD erabilera publikoko erakunde izendatua da, eta 1999an sortu zen Gipuzkoan. Indian laguntza humanitarioko eta garapenerako proiektuak babesten ditugu, pertsonen eta taldeen garapen integrala sustatzeko. Betiere errespetatzen ditugu pertsona eta herri bakoitzaren nortasuna eta erlijioa, eta giza eskubideak zein genero-ekitatea sustatzen ditugu.

Gure inguruan, Hegoaldeko herrialdeetan ematen diren bazterketa, bidegabekeria eta pobretze egoeren arrazoiak, ondorioak eta horien aurrean dugun erantzukizun partekatua ulertzeko kontzientzia kritiko eta konprometitua bultzatzen dugu. Era berean, ikuspegi positibo batetik, elkartasuna, kultura-ainzatasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua sustatzen ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroan AS/G8501/2001 zenbakiarekin inskribatuta dago, eta bere IFZ zenbakia G-20696175 da. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta Pobreziaren Aurkako Plataformako kidea da, eta 2009an Erabilera Publikoko Erakunde izendatu zuten (36/2009 Dekretua).

Calcuta Ondoaneko **boluntarioritza** adin guztietako pertsona aktibo eta konprometituek osatzen dute. Haien inplikazioari eta lanari esker posible da gure eguneroko jarduera aurrera eramatea. Animatu eta parte hartu!

HARREMANA

 Calcuta Ondoan ONGD

 calculaondoan

 Calcuta Ondoan ONGD

 +34 943 431 849

 info@calculaondoan.org

 Maestro Santesteban Kalea, 3 - 2ºB
20011 Donostia Gipuzkoa



Lagundu!
calculaondoan.org

Zure ekarpenari esker, onura fiskalak eskuratu ahal izango dituzu; izan ere, erabilera publikoko erakunde izendatua gara. Hori dela eta, zure kuoten edo dohaintzen %30eraino desgraba dezakezu PFEZean. Garrantzitsua: ekarpenak egitean, mesedez, adierazi zure NAN edo IFZ zenbakia.